BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3815

AGINDUA, 2014ko irailaren 4koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinarekin ebatzi egiten baitira 2014ko ekitaldiko Euskal Turismo Sariak.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko maiatzaren 7ko Aginduaren bitartez arautu egiten dira Euskal Turismo Sariak (2014-05-14ko EHAA, 89. zk.). Eta Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2014ko uztailaren 4ko Ebazpenaren bitartez argitaratu egiten da, 2014ko ekitaldiari dagokionez, Euskal Turismo Sariak emateko deialdia (20145-07-14ko EHAA, 132. zk.). Bada, agindu horren 9. artikuluan xedatutakaorekin bat etorriaz, kontuan izanik ebazpen hori, eta Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena, sariak emateari buruzkoa, ezagutu ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena ikusita, Euskal Turismo Sariak, 2014ko ekitaldikoak, honako hauei ematea:

– Kategoria: Berrikuntza Bultzatzea: honakoari: Bajo El Agua Factory.

– Kategoria: Lehiakortasuna bere jarduera-sektorean: honakoari: Hotel Eguren Ugarte. Paganos-Laguardia.

– Kategoria: Ibilbide profesionala: honakoari: Gran Camping Zarautz.

2.– Halaber, epaimahaiak erabaki du, salbuespenez, aitorpen berezia ematea «Pintxos Donostia» taberna-elkarteari 2014. urte honetan.

3.– 2014ko maiatzaren 7ko aipatu aginduaz ezarritakoarekin bat etorriaz jasoko dute erakunde onuradunek errekonozimendu publikoa, hain justu ere hartarako deitutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Industria, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 4a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.